



## UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

### ACTA del PLENO MUNICIPAL

BILERA ZK.: 2022/09

SESIÓN Nº: 2022/09

EGUNA: 2022/10/27

DÍA: 27/10/2022

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE INICIO: 19:00

AMAIERA ORDUA: 19:20

HORA DE FINALIZACIÓN: 19:20

TOKIA: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

LUGAR: Salón de Plenos de la casa consistorial

#### BERTARATUAK:

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

#### ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, **alcalde**

#### EH Bildu udal taldea

Itziar Irizar Beristain

Grupo municipal EH Bildu

Aritz Larrañaga Unanue

Itziar Irizar Beristain

Antxon Etxeberria Larrea

Aritz Larrañaga Unanue

Nerea Arrizabalaga Badiola

Antxon Etxeberria Larrea

Antxoka Elorza Altuna

Nerea Arrizabalaga Badiola

#### Debarren Ahotsa udal taldea

Pedro Bengoetxea Loiola

Antxoka Elorza Altuna

Isidor Lamariano Arostegi

Grupo municipal Debarren Ahotsa

Ane Egidazu Elosua

Pedro Bengoetxea Loiola

Enrique Salgado Alcorta

Isidor Lamariano Arostegi

#### EAJ-PNV udal taldea

Ane Egidazu Elosua

Iñigo Cambronero Alkorta

Enrique Salgado Alcorta

Eneritz Gómez Lázaro

Iñigo Cambronero Alkorta

Miren Esnal Laskibar

Eneritz Gómez Lázaro

**Idazkaria:** Jose Luis Salaberri Iñarra

**Secretario:** Jose Luis Salaberri Iñarra

## **ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK.**

**Gilen Garcia:** Arratsaldeon eta ongi etorri denoi Osoko Bilkurara.

### **1.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.**

**Gilen Garcia:** Ba al dago ekarpenik edo iradokizunik?

**Pedro Bengoetxea:** Nik badaukat galdera pare bat.

Lehena, 480 Dekretua, «Idazkaritza eta Kontuhartzaitza lanpostuak hutsik uzteko proposamena egitea GFARI». Suposatzen dugu zer den, baina, ziurtatu nahiko genuke.

**Gilen Garcia:** Lanpostu horiek gaur egun ez daude osatuta legediak eskatzen duen bezala, eta hori da urtero egiten den lehiaketaren emaitza.

**Jose Luis Salaberri:** Urtero egin behar da lehiaketa arrunta bat, gaikuntza nazionala duten funtzionarioentzat gordeta dauden plaza horiek betetzeko. Aurten ere deitu zen lehiaketa, eta ez ziren eskaerak aurkeztu; orduan, Aldundiari horren berri ematea da, eta bi lanpostu horiek dauden moduan uzteko eskera egiten da.

**Pedro Bengoetxea:** Mila esker, argitura geratzen da. Bigarrena, 519. da, «Santiago ibilbidean jarrita dauden txabolak kentzeko igarotze-baimena ematea.»

**Gilen Garcia:** Nik zalantza berdina izan nuen. Izozki txabolak kentzeko eskatu zuten baimena eta Santiago bidean jarri zuten, baina hondartzako pasealekua da, baina eurek izena horrela jarri zuten eta erantzuna horrela eman zaie, baina ez dauka zerikusirik Santiago Bidearekin.

**Gilen Garcia:** Ba al dago besterik?

**Iñigo Cambronero:** Ez, guk ez daukagu ezer.

Udalatzak jakinaren gainean geratzen da.

## **TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS.**

**Gilen Garcia:** Buenas tardes y bienvenidos y bienvenidas a la sesión plenaria de hoy.

### **1.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.**

**Gilen Garcia:** ¿Hay alguna aportación o sugerencia?

**Pedro Bengoetxea:** Yo tengo un par de preguntas.

El primero, el Decreto 480, "«Idazkaritza eta Kontuhartzaitza lanpostuak hutsik uzteko proposamena egitea GFARI». Suponemos que es, pero nos gustaría asegurarnos

**Gilen Garcia:** Actualmente esas plazas, no están cubiertas como exige la legislación, y es el resultado del concurso que se realiza anualmente.

**Jose Luis Salaberri:** Todos los años hay que convocar un concurso ordinario para cubrir esas plazas, que están reservadas a funcionarios con habilitación nacional. Este año también se convocó el concurso y no se presentaron solicitudes, así se trata de dar cuenta a la Diputación y se solicita que se dejen esas dos plazas como están.

**Pedro Bengoetxea:** Muchas gracias, queda aclarado. La segunda es la 519, «Santiago ibilbidean jarrita dauden txabolak kentzeko igarotze-baimena ematea.»

**Gilen Garcia:** Yo tuve la misma duda. Pidieron autorización para retirar las chabolas de helados, y pusieron camino de Santiago, pero es el paseo de la playa, pero ellos le llamaron así y se les ha contestado así, pero no tiene nada que ver con el camino de Santiago.

**Gilen Garcia:** ¿Hay algo más?

**Iñigo Cambronero:** No, nosotros no tenemos nada.

El Pleno queda enterado.



## 2.- VIALINE ENPRESAK KUDEATUTAKO 2022KO TRAFIKO ISUNEI BURUZKO ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA.

**Gilen Garcia:** Ba ahal dago iradokizunik edo ekarpenik?

Ez dago ez ekarpenik edo ez iradokizunik.

Udalatzak jakinaren gainean geratzen da.

## 2.- CONTROL DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA SOBRE MULTAS DE TRÁFICO GESTIONADAS POR LA EMPRESA VIALINE EN 2022.

**Gilen Garcia:** ¿Tenemos alguna pregunta o aportación?

No hay aportaciones ni sugerencias.

El Pleno queda enterado.

## 3.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, HERRIKO GUNE ARAUTUETAN IBILGAILUAK APARKATZEAN JABEGO PUBLIKOA ERABILI EDO APROBETXATZEARI BURUZKO ORDENANTZAREN (TAO) ALDAKETA.

**Gilen Garcia:** Itziar, zurea da hitza.

**Itziar Irizar:** Ordenanza hau, 2021ean aparkalekuen antolaketa egin zenetik urtero berrikusten da, eta orain ez dira aldaketa nabarmenik egiten, gauza batzuek zehaztea baino ez da proposatzen.

Ordenanza honen helburua da trafikoa eta aparkalekuak antolatzea eta, batez ere, maiatzetik iraila bukaera arteko epe horretan ahalik eta modu egokienean antolatzea trafikoa eta aparkalekuen erabilera.

Datorren urterako zehaztapen batzuk egiten dira, eta Tokiko Batzordean adostu duguna da mantentzea, orain arte bezala, maiatzean asteburuetan, eta ekainetik irailaren 30era arte, egunero; eta udatiarren puntuauan,

## 3.-APROBAR, SI PROcede, LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA REGULADORA DE LA UTILIZACIÓN PRIVATIVA O EL APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL MEDIANTE EL ESTACIONAMIENTO DE VEHÍCULOS EN ZONAS REGULADAS DE LA VILLA (OTA).

**Gilen Garcia:** Itziar, tienes la palabra.

**Itziar Irizar:** Esta Ordenanza se revisa anualmente desde que se hizo la ordenación de los aparcamientos en 2021, ahora no se hacen cambios significativos, solo se propone concretar algunas cosas.

El objeto de la presente Ordenanza es ordenar el tráfico y los aparcamientos y, sobre todo, ordenar de la forma más adecuada posible el tráfico y el uso de los aparcamientos durante el periodo comprendido entre los meses de mayo y septiembre.

Para el año que viene se hacen algunas precisiones, y lo que y lo que hemos acordado en la Junta de Gobierno es mantener, como hasta ahora, en mayo, los fines de semana, y desde junio hasta el 30 de septiembre todos

testuan jasotzea taulan jasotan zegoena, hau da, etxebizitza bakoitzeko txartela bat.

Bertakoen txartelen kasuan, jadanik ordenantza fiskaletan onartu genuena, ordenantza honetan ere jasotzen da, hau da, 5 euroko tasa ordaindu behar izatea. Hemen erroldatuta dauden ibilgailu jabeei jakinaraziko zaie urtea amaitu baino lehenago, jendeak jakin dezan datorren urteko TAO denboraldia hasi baino lehenago jakin dezaten.

Orduan, ba horixe, zehaztapen batzuk egin eta ordenantza eguneratzea da egin dena.

Ez dakit zerbait gehitu nahi duzuen, edo.

**Pedro Bengoetxea:** Ez, Tokikonean horrela adostu dugu, eta ez daukagu ezer gehitzeko.

**Iñigo Cambronero:** Gure aldetik ere ez daukagu ezer gehitzeko.

**Gilen Garcia:** Hortaz bozkatu egingo dugu. Aldeko botoak? Aho batez.

Udalatzak, aho batez, ERABAKITZEN DU:

**Lehena.-** Hasierako onespina ematea herriko gune arautuetan ibilgailuak aparkatzean jabego publikoa erabili edo aprobetxatzeari buruzko ordenantzaren (TAO) aldaketari.

**Bigarrena.-** Ordenantzaren aldaketaren testua jendaurrean jartzea 30 eguneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztekoko aukera egon dadin.

**Hirugarrena.-** Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat jotzea, baldin eta jendaurrean jartzeko epean ez bada ez alegaziorik ez erreklamaziorik aurkezten.

los días; y en el punto de los veraneantes, recoger en el texto lo que ya estaba recogido en la tabla, es decir, una tarjeta por vivienda.

En el caso de las tarjetas de residentes, también se recoge en esta ordenanza lo que ya aprobamos en las ordenanzas fiscales, esto es, el abono de una tasa de 5 euros. Se comunicará a los propietarios de los vehículos censados aquí antes de fin de año, para que tengan conocimiento antes del inicio de la temporada de OTA del año próximo.

Entonces, lo dicho, lo que se hace es hacer algunas precisiones y actualizar la ordenanza.

No sé si queréis añadir algo.

**Pedro Bengoetxea:** No, es lo hemos acordado en la Junta de Gobierno, y no tenemos nada que añadir.

**Iñigo Cambronero:** Por nuestra parte, tampoco tenemos nada que añadir.

**Gilen Garcia:** Entonces votaremos. ¿Votos a favor? Por unanimidad,

El Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar inicialmente la modificación de la ordenanza reguladora de la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público local mediante el estacionamiento de vehículos en zonas reguladas de la villa (OTA).

**Segundo.-** Someter a información pública el texto de la modificación de la ordenanza durante un plazo de 30 días para la presentación de reclamaciones y sugerencias.

**Tercero.-** Considerar la modificación de la ordenanza definitivamente aprobada, si en el plazo de información pública no se presentan alegaciones ni reclamaciones.



**4.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, MENDARO, ELGOIBAR, MUTRIKU ETA DEBAKO UDALEN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, MENDAROKO ADINEKOEN UDAL-OSTATU ZERBITZUA KUDEATU ETA ERABILTZEKO.**

**4.-APROBAR, SI PROcede, EL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE MENDARO, ELGOIBAR, MUTRIKU Y DEBA PARA LA GESTIÓN Y USO DEL SERVICIO MUNICIPAL DE ALOJAMIENTO PARA PERSONAS MAYORES DE MENDARO.**

**Gilen Garcia:** Aritz, zurea da hitza.

**Aritz Larrañaga:** Gizarte Politiken Batzordetik pasa da hitzarmen hau. Azken finean, etxe horien irekitzea pixka bat atzeratu egin da, orain urte dezente eginak daude, eta hitzarmena falta zen martxan jartzeko, eta araudi hori behin onartuta, beste zerbitzu bat eskainiko dugu.

Hitzarmen sinatuko dugun udalek egingo diogu aurre gastu horri, eta udal horietako herriarrek izango dute aukera etxebizitza horiek erabiltzeko.

Hiru etxebizitza dira, eta notizia on bat da beste zerbitzu bat eskainiko dugulako.

**Gilen Garcia:** Ez badago ekarpenik bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalatzak, aho batez, onartzen du Mendaro, Elgoibar, Mutriku eta Debako udalen arteko lankidetza-hitzarmena, Mendaroko adinekoen udal-ostatu zerbitzua kudeatu eta erabiltzeko.

**Gilen Garcia:** Aritz, tienes la palabra.

**Aritz Larrañaga:** Este convenio ha pasado por la Comisión de Políticas Sociales. En definitiva, la apertura de estas viviendas se ha retrasado un poco, están hechas hace bastantes años, y faltaba un convenio para su puesta en marcha, así, una vez aprobada la normativa que, ofreceremos otro servicio.

Este gasto lo asumiremos los ayuntamientos que firmaremos el convenio, y los y las vecinas de esos municipios podrán hacer uso de estas viviendas.

Son tres viviendas, y es una buena noticia porque vamos a ofrecer otro servicio.

**Gilen Garcia:** Si no hay ninguna aportación, procedemos a la votación. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba el convenio de colaboración entre los ayuntamientos de Mendaro, Elgoibar, Mutriku y Deba para la gestión y uso del servicio municipal de alojamiento para personas mayores de Mendaro.

**5.- ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, EUSKARALDIAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

**Gilen Garcia:** Aritz, zurea da hitza.

**5.- APROBAR, SI PROcede, LA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE EUSKARALDIA.**

**Gilen Garcia:** Aritz, tienes la palabra.

**Aritz Larrañaga:** Adierazpen instituzionala irakurtzen du:

**Aritz Larrañaga:** Procede a la lectura de la declaración institucional:

### **«ERAKUNDE-ADIERAZPENA UDALEAN ETA UDALEERRIAN EUSKARALDIAREN HIRUGARREN EDIZIOA SUSTATZEKO**

*Euskal Herri osoko ehunka herritako milaka lagunek parte hartu zuten 2018ko eta 2020ko Euskaraldiaren lehenengo bi edizioetan, erakunde publikoen zein gizarte eragileen bultzadaz.*

*Deban ere 1.000 herritar inguru izan dira edizio horietan “Ahobizi” edo “Belarriprest” gisa parte hartu dutenak, eta 70 entitate baino gehiagotan eratu dira “Ariguneak”.*

*Lehenengo eta bigarren edizioen balorazioa positiboa izan zen, bai parte-hartzearen aldetik, eta baita ekimenak erabileran izan duen eraginaren aldetik ere. Une honetan, abian dira Euskaraldiaren hirugarren edizioa antolatzeko lanak.*

*Euskararen alde egotetik euskaraz gehiago egitera pasatzeko ariketa soziala da Euskaraldia. Hain zuzen ere, “Hitzez ekiteko garaia” du leloa hirugarren edizioak. Aurreko bi edizioetan moduan, herritarron hizkuntza-ohituretan eragitea eta euskararen erabilera gehitzea izango da helburu nagusia.*

*Bigarren edizioan bezala, oraingoan ere, entitateek era aktiboan parte hartuko dute ariketan. Hori dela eta, entitateetan euskaraz lasai jarduteko “Ariguneak” sortzea izango da entitateon zeregin nagusia.*

*Deban, dagoeneko, abian da Euskaraldia taldea; baita ekimena herriko entitateetan aurkeztuko dutenen sarea ere.*

*Horregatik guztiagatik, honako hau adierazten dugu:*

#### **ERAKUNDE ADIERAZPENA**

- *Debako Udalbatzak bat egiten du, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra, Euskal Herri osoan zehar bideratuko den Euskaraldiarekin, eta ekimenaren sustatzaile izango da Debako Euskaraldia taldearekin batera. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritasunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.*
- *Debako Udalak, entitate gisa, Euskaraldian izena emango du, horretarako beharrezko ariguneak identifikatuz eta bultzatuz, eta Udalbatza bera ere “arigune” gisa identifikatuz.*
- *Udalkide, herritar eta herriko eragileei dei egiten die prestaketa-lanetan parte har dezaten eta, bere garaian, “Ahobizi” edo “Belarriprest” izan daitezen eta “Ariguneetan” parte har dezaten.*
- *Ordezkari politikoen egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren esparruaren baitan, eta bereziki Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan, ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta “Arigune” gehien, eta “Ahobizi” eta “Belarriprest” gehien aktibatzeko urratsak emango dituzte, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.*
- *Debako Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izateko eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.»*



**Gilen Garcia:** Bozkatu egingo dugu. Aldeko bozkak? Aho batez.

Udalatzak, aho batez, onartzen du Euskaraldiaren Adierazpen Instituzionala.

**Gilen Garcia:** Procedemos a la votación. ¿Votos a favor? Por unanimidad.

El Pleno, por unanimidad, aprueba la Declaración Institucional de Euskaraldia

## 6.- ESKARI ETA GALDERAK.

**Gilen Garcia:** Ba al dago eskari edo galderarik?  
Ez da ez eskaerarik ez galderarik egiten.

**Gilen Garcia:** Hortaz, ez badago besterik amaitutzat emango dugu Osoko Bilkura.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez,  
19:20ean amaitzen da Osoko Bilkura

## 6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

**Gilen Garcia:** ¿Hay algún ruego o pregunta?  
No se formulan ni ruegos ni preguntas.

**Gilen Garcia:** Por tanto, si no hay más asuntos, daremos por finalizado el Pleno.

Sin más temas que tratar, alas 19:20 horas,  
finaliza el Pleno.

Jose Luis Salaberri Iñarra  
Idazkaria



Gilen Garcia Boyra  
Alkatea

